


HUTS TEATROAK

aurkezten du



Idazlea: Xabier Mendiguren

Zuzendaritza: Manex Fuchs

Miren Tirapu Ander Lipus Iñaki Ziarrusta

## **Publikoari gorroto**

**Cía. Artedrama**

Antzerkia / Teatro

Otsailak 14 febrero

20:00 h

Bizkaia Aretoa  
Abandoibarra etorbidea, 3  
Bilbao

## SINOPSISIA

Aktore bat, bi ikusle, agertoki bat. Besterik ez du behar antzerkiak: hortik aurrera hasten den jokoan, dena da posible. Teatroari buruzko hausnarketa jostalari baten moduan hasten da obra hau, publikoarekiko keinuz eta umorez; pixkanaka, ordea, arimaren barrunbe ilunenak joango dira agertzen: krudelkeria, bortxa, botere-harremanak... giza izatearen amildegi ertzera iristeraino.

## TAULA ZUZENDARITZAREN OHARRAK

**Publikoari gorroto** idazteko, Xabier Mendigurenek Antonin Artaud-ren eragina aipatzen du. "Antzerkia eta bere doblea". Aktorea eta taula zuzendaria, pertsona eta pertsonaia, ni eta nere mamua. Baina antzerki hau ez da "metateatroa". Izaitekotan, ekintza teatral bat da, oholtza gainean gizon eta emazte erretzen dituen, krudela zer den ikus eta entzun dezagun. Arma arkaikoak izango ditugu eskutan: maskara bat, margoak eta animatua izaitea eskatzen duen gauza zorbait.

Eszenografia: oihal gorri pare bat, zerbait gordetzekoa dugula argi uzteko.

Gaineratekoa jokoa izango da, kodigo guzietan aritua, moralki inkorretoa, mugagabea. Garbiki erraiteko, gure burua edo auzoarena torturatzeko dugun irudimena agerian utzi nahi dugu. Norberak bere bizia eszenifikatzeko egiten duen indarra. Amodioa eta gorrotoaren arnasa. Eta hondarrean, miseria. Itsuski ederra, krudela."

